

JOKIN GILISAGASTI

Noiz, nola eta zergatik hasizinen batería jotzen?

Lagun batzuekin musika eskolan alokatzen zituzten konbo gela batera joan ginen 16 urterekin. Bestek bazekiten jotzen, nik ez. Eta hor eman nituen bateriako lehen kolpeak. Handik gutxira lagun horiekin talde bat sortu genuen eta konposatzen hasi ginen. Laster lehen kontzertuak eman genituen, desastre bat, baina asko ikasi nuen.

Hortik aurrera beti egon naiz proiektu musikaletan sartuta eta bidean ikasten joan naiz, proiektuek eskatzen zutena eman ahal izateko.

Zein da musikarekin lotzen duzun lehen oroitzapena? Eta bateriarekin lotzenduzun lehena?

Etxean musika beti entzun dugu, baina bitxia bada ere, 11 urte nituela edo, "Need for speed" bideojoko berria atera zuten eta bertan, Moto Racer II jokoaren promo bat zegoen. Iragarki honetan abesti bat zegoen, punk rock melodikoa, oso zikin grabatua baina melodía eta ahots politekin. Hor uste dut irudikatu nuela lehenengo aldiz nire burua instrumentu bat jotzen. Eta gehien erakartzen ninduen batería zen.

Zeintzuk izan ziren zure lehen musika eraginak?

Etxeok Andrés Calamaro, Silvio Rodriguez, Victor Jara, Nirvana, Guns and Roses... Eskolan Oskorri, Sorotan Bele... Lagunekin Molotov, Ska-p, Piperrak, La Polla, Kaos Etiliko... Eta nerabezaroan Rage Against the Machine, Sistem o a Down, Limp Bizkit, Linkin Park, Berri Txarrak, Papa roach, Blink 182, Offspring, Millencolin, Bad Religion, Green Day...

Musika ikasketak egindakoa zara edo zure kasa ikasi duzu?

Nire kasa ikasitakoa naiz. Lokala, bateria eta "ensayo error". Beranduago, youtube eta abarrekin, begiratu ditut trukoak eta abar, baina ez dut klaserik jaso.

Orainarteko zure musika ibilbidearen laburpena? Ikasketak, taldeak, etab...?

Esan bezala 16 urterekin "No name" izeneko talde bat egin genuen lagunekin, punk rock/metal eraginekin. Hor hasi nintzen bateria jotzen. Desastre bat izan bazen ere, lehen maketa grabatzea, kontzertutarako behar den logistika eta abar zer den ikasi genuen.

Ondoren Liarren aritu ginen, 70-80. Hamarkadako bertsoak jotzen.

Beranduago 3gabe2n aritu nintzen, berbena taldea, eta hor ikasi nuen benetan edozein egoeretan jotzen: berandu, ekipo kaskarrekin, soinu frogarik gabe... tablak eman zizkidan.

Margot izeneko proiektuan ere aritu nintzen abeslari urte batzuetan, eta hemen ere maketa grabatu genuen.

2014ean Ze Esatek-etik deitu zidaten froga bat egiteko. Garai hartan 3gabe2n nenbilen, baina gutxiago jo nahi zuten eta nik gehiago, animatu ninduten froga egiteko. Eta ondo atera zenez, haiekin hasi nintzen. Estudioan grabatzen ikasi nuen eta azken bi diskoak grabatzeko aukera izan dut.

2016ko abenduaren 31ean Nøgen talde sortu berria aritzeko eskaintza egin zidaten eta ordudik haiekin nabil. Maketa eta lehen diska grabatu ditut haiekin.

Parte hartuduzun diskoetako erritmoak sortzeko método finko bat daukazu? Ikasterako orduan? Zein da musikari gisa konposatu eta ikasteko duzun filosofia?

Daukadan mailatik abiatuta, nire filosofia "less is more" da. Hau da, abestia laguntzen dut, ahalik eta modu sinpleenean, atentzioa ahotsetara edo melodietara joan dadin. Ez dut ezer erakusteko anbizioarik eta hortaz, ez nahiz hutsune guztiak betetzen saiatzen.

Ikasterako orduan, errepikatu, eta errepikatu eta errepikatu...

Teknikoki fina izateaz da nahikoa, aspektu psikologiko eta humanoak garrantzia handia dute gure ogibidean, nola lantzen dituzu azken hauek?

Nik ez det musikari bezala lan egiten, irakaslea naiz. Musikan ondo pasatzeko aritzen naiz. Konpromiso handia dut taldeekin beti, eta serio hartzen dudana zerbait da, baina helburua ondo pasatzea da. Horregatik uste dut erraza egin zaitela taldekideekin ondo konpontzea.

Lan bezala hartuko banu ere, taldekideekin ondo eramatea, elkarrekin lan egiten ikasteko, garrantzitsua da. Nahiz eta munduko baterijole onena izan, inork ez zaitu bere taldean nahi izango ergel hutsa bazera.

Zein musika entzuten duzu inspirazio iturri bezala edo gozamenerako?

Estilo asko entzuten ditut. Erantzuna laburtzeko, Nøgenerako esaterako, Mumford and Sons, Of Monsters and Men, Lumineers, La MODA, Eraul...

Euskal Herrian egindako musikaren artean eragin zaituzten hiru disko aipatzerik bai?

Berri Txarraken "Jaio.Musika.Hil.", Kerobiaren "Kerobia", Willis Drumonden "Instanteak".

Euskal eszenako hiru bateria-jole? Zergatik?

Williseko Felix "Rüdiger" , teknikoki ikaragarria izan arren, gustu handia duelako arregloak egiterako garaian. Arrazoi berdinentatik Mikel Abrego (BAP, Fermin Muguruza, Anari...) eta Andoni Etxebesten (Serrulla, Atom Rhumba).

Musikaren historian sortudiren diskoetako zeinetan gustatuko litzaizuke parte hartu izana?

Rage Against The Machinen "Rache Against the Machine" diskoan.

Zeintzuk izan dira zure bateria-jole fetitxeak?

Buddy Rich, Daniel Glass, Thomas Pridgen, Atom Willard, Travis Baker, Nikki Glaspie eta Kim Thomsom (Bereziki Beyoncerekin daudenean).

Ametsik baduzu buruan? Zeintzuk dira zure gertuko helburuak?


Nøgenekin gauzak txukun egiten jarraitzea, edo gutxienez, hortan saiatzea.

Bateria-jole fin batek zein ezaugarri eduki behar ditu zure ustez?

Asko laburbilduz, ez du abestia izorratu behar. Berdin du zenbaterainoko teknika edo tenpoa ez badakizu abestia ulertzen. Egiten duzuna egiten duzula, erraza edo zaila izan, abestia laguntzeko behar du izan.

NOGEN ORA FT. ERAUL

BATERIA JOLEA: JOKIN GUILISAGASTI



A

B

C

D

E

The musical score consists of six staves. The first staff is a melody line with eighth notes and a repeat sign. The second staff is a bass line with eighth notes and a repeat sign. The third staff is a complex rhythmic pattern with slurs and accents, featuring a first ending (1. 4) and a second ending (2. 4). The fourth staff continues the rhythmic pattern with a first ending (1. 4) and a second ending (2. 4) marked with an 'x 2'. The fifth staff is another complex rhythmic pattern with a first ending (1. 4) and a second ending (2. 4) marked with an 'x 2'. The sixth staff is a simple bass line with a few notes and a repeat sign.